

AKTA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2019KO URRIAREN 23AN EGINDAKO BILERARENA

Presidenteak deituta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egoitzan, 2019ko urriaren 23an, 09:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUTAKOAK**PRESIDENTEA**

Miren Nekane Murga Eizagahevarria andrea

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Era berean, Juan Luis Diego Casals jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusia etorri da Kontseiluaren bilerara, presidenteak gonbidatuta.

Iñaki Berraondo Zabalegui presidenteordeak bertaratu ez izana justifikatu du.

GAI-ZERRENDA

LEHENGOA.- Administrazio Kontseiluak 2019ko irailaren 18an egindako bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea

Akta ez da irakurri, Kontseiluko kideei alde zuzenean bidali baitzaie. Presidenteak balioetsi ostean, onartu egin da Kontseiluak 2019ko irailaren 18an egindako bileraren akta.

BIGARRENA.- Erabakia, 2019ko uztailaren 23ko aktako akatsak zuzentzekoa, kudeaketa klinikoko unitateen arauketa, eraketa, egitura eta funtzionamenduari buruzko erabakiari dagokionez.

BAKARRA.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2019ko uztailaren 23ko hartutako erabakiaren bitartez aldatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2012ko maiatzaren 23an hartutako erabakia, kudeaketa klinikoko unitateen arauketa, eraketa, egitura eta funtzionamenduari buruzkoa.

Egiaztatu da aipatu aktak bi akats dituela:

- a) Batetik, 3. artikulua 2. zenbakia falta da. Zuzenduta, honela geratuko da idatzita:

«3. artikulua.- *Kudeaketa klinikoko unitateen eraketa.*

1.- Zerbitzu-erakunde bakar bati eragingo dioten kudeaketa klinikoko unitateak erakunde bereko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez eratuko dira.

Kudeaketa klinikoko unitateak zerbitzu-erakunde bati baino gehiagori eragiten dionean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren erabakiz eratuko dira, tartean dauden zerbitzu-erakundeetako zuzendari kudeatzaileak hala proposatuta.

2.- Eratzeko ekimena bultzatu ahalko dute profesional interesdunek beraiek edota zerbitzu-erakunde interesduneko zuzendari kudeatzaileak berak.

3.- Kudeaketa klinikoko unitateak eratzeko proposamenak honako hau hartu beharko du barne nahitaez:

- *Proposatzen den zerbitzu-zorroa.*
- *Barne hartutako asistentzia-prozesuen zerrenda.*
- *Unitatean aurreikusitako paziente/jarduera bolumena.*
- *Pazienteentzako abantailak eta desabantailak.*
- *Eragindako zerbitzu-erakundearentzako abantailak eta desabantailak.*
- *Proposatzen den unitate-antolaketa.*
- *Martxan jartzearen ondoriozko kostuak.*
- *Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko aukera emango duen informazio-sistema.*

4.- Kudeaketa klinikoko unitateak dagokion zerbitzu-erakundearen zuzendari-kudeatzailearen mendekoak izango dira, maila organikoari eta funtzionalari dagokienez. Unitateak zerbitzu-erakunde bat baino gehiagoko baliabideak hartzen baditu, unitatea eratzeko ebazpenean jasoko da zein zerbitzu-erakunderen mendeko izango den organikoki eta funtzionalki.

5.- Kudeaketa klinikoko unitateak formalki eratuta geratuko dira kudeaketa klinikoko lehen hitzarmena formalizatzen denean».

- b) Bestetik, aldaketa-proposamena Osasuneko sailburuordearen aldetik etorri zen, eta ez Osakidetzako zuzendari nagusiaren aldetik, akta hala jasota egon arren. Horrenbestez, paragrafo akasduna zuzenduta, honela geratu da idatzita:

«Hori ikusita eta Osasuneko sailburuordeak proposatuta, Osakidetza - Euskal osasun zerbitzuaren administrazio-kontseiluak,».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

BAKARRA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoa betez, administrazio publikoek ofizioz zuzendu ditzakete beren egintzetan egon daitezkeen akats materialak, egitatezko akatsak zein akats aritmetikoak, betiere ez bada igaro preskripzio-epaia.

Hori horrela, administrazio-kontseiluak

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Akatsa zuzentzea 2019ko uztailaren 23ko erabakian, eta 2. puntua sartzea 3. Artikuluari 2012ko maiatzaren 23ko Erabakian (horren bidez arautzen da kudeaketa klinikoko unitateen eraketa, egitura eta funtzionamendua); **horrenbestez, aipatu 3. artikulua idazketa izango da egitate bakarreko aurrekariaren a) apartatuan kaxotx artean jasota dagoena.**

BIGARRENA.- Akatsa zuzentzea 2019ko uztailaren 23ko Erabakian, eta aldaketa-proposamen Osasuneko sailburuordearen ekimenez zetorrela adieraztea, **egitate bakarreko aurrekariaren b) apartatuan adierazi idazketa emateko paragrafo horri.**

HIRUGARRENA.- Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari mandatua emateari buruzkoa, 2016-2017ko EPEari loturiko ebazpenak idatz ditzan

Ikusita 2016-2017 EPEari dagozkion hautaketa-prozesuetako batzuk ikerketa pean daudela 301/2019 aurretiazko eginbideetan, eta instrukzio-epaitegiak ikerketa pean dituen jarduketa guztiak edo batzuk artxibatzea edo ez artxibatzea erabaki arte, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2019ko urriaren 23an eginiko saioan, aipatu gaia aztertu ostean, eta 2016-2017 EPEaren garapenean betetzearren zigor-prozeduraren prebalentziaren, interes orokorraren defentsaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak, hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa.- Zuzendaritza Nagusiari mandatu ematea hautaketa-prozesu batzuk kautelaz eteteko ebazpenak idatz ditzan; hain zuzen ere, 2016-2017 EPEek barne hartutako hautaketa-prozesu batzuk, zigor-jurisdikzioak aurretiazko eginbideen pean jarritakoak. Etendurak zigor-prozedura ebazten den arte iraungo du.

Bigarrena.- Zuzendaritza Nagusiari mandatu ematea kautelazko etenaldia amaitzeko ebazpenak idatz ditzan, zigor-jurisdikzioak auzion gainean hartutako erabakiek –tartean, largeteak edo artxibatzeak– horretarako bide eman ez gero.

Hirugarrena.- Adieraztea ezen Zuzendaritza Nagusiak erabaki honetan oinarrituta emango dituen ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla, eta kasuan kasuko eginbideak izapidetzen ari den zigor-jurisdikzioari komunikatuko zaizkiola.

Laugarrena.- Zuzendaritza Nagusiari mandatu ematea, ahalik eta modu zabal eta orokorrean eman ere, behar diren ebazpen guztiak idatz ditzan, horien guztien zerrendarik egin beharrik gabe, eta bat ere berariaz kanpoan utzi gabe, xedetzat hartuta egiazko eta erabateko konplimendua ematea 2016-2017 EPEari dagozkion hautaketa-prozesuen kudeaketa integral eta osoari.

LAUGARRENA.- AURREKONTUAREN JARRAIPENA

Zuzendari nagusiak iraileko aurrekontu-jarraipena aurkeztu du, bai eta 2019ko ekitaldiaren amaierarako aurreikuspena ere.

BOSGARRENA: PLANTILLA HANDITZEKO ESPEDIENTEA

Plantilla handitzeko espedientearen gaineko erabakia negoziatzeko datak aztertu dira. 2019an izapidetu behar da aipatu espedientea, 2019ko EPEa zehaztu eta onartuko bada. Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak hitzeman du hurrengo bileran aurkeztuko duela handitzeko espedientea, kontseiluak onartu, eta Jaurlaritzak 2019ko EPEa onartu ahal izan dezan.

SEIGARRENA.- Eskariak eta galderak

Eta lantzeko beste gairik ez denez, bilera amaitutzat eman da 2019ko irailaren 18an, 17:30ean.



**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA
PRESIDENTEA**